ADITZ LAGUNTZAILE BATUAREN GORABEHERAK

Donostian, 1975gn uztailaren 29an

Patxi Altuna S. J.

Behin eta birritan eskatu dit Aita Villasantek, eta gaurdaino ez dut beronen gogoa bete, Aditz Laguntzailea batzerakoan izan genituen gorabeheren eta hartu genituen lanen eta agertu genituen iritzien ixtorio koxkorra egin dezadan, Batzorde-idazkari izan nintzenez gero; inoizko euskaldunek egunen batean haien berri jakin nahi badute, onartu genituen adizkiak eta baztertu genituenak nola eta zergatik onartu batak eta baztertu besteak genituen, ikasteko biderik eta argitasunik izan dezaten.

Biltzarre honetarako egingo nuela agindu nion eta hemen dakarkizuet zuetariko batek baino gehiagok nik bezain ongi ezagutzen dituzuen geure arteko borroka koxkorren kontakizuna.

Ez naiz, halaz ere, gehiegizko xehetasunetan sartuko, txostena luzeegi atera ez dakidan, batetik, eta geure bilkuretan finkatzen genituen edota zalantzan uzten genituen adizkien aldeko eta kontrako arrazoiak lehendik ezagunak dituzuelako, bestetik, eta, azkenik, lanean aritu ginen urte haietan batzordeko guztiei ez ezik, Euskaltzain osoei ere, geure lanaren berri aldiz behin eman eta berarekiko iritzia eskatu ere egin genielako.

Aurrera baino lehen, ordea, txosten honen hasieran bertan utzi nahi nuke Aditz Laguntzaileak zor larria dion lagun maite baten aitormena: Gabriel Aresti zenarena. Euskaltzaindiak aditza batzen hasteko batzordea izendatu zuen arte ez zuen onik ez bakerik, bai haserrabide askorik, izan; izendatuz gero, berak egokien zeritzan aditzaren alde hamaika borrokatxo, gozoz eta zaporez baina baita, berak ohi zuenez, errenkuraz eta erresuminez oratu sortu zuen gure artean; Aditz

Laguntzailea baturik ikusi zuen arte ez zuen behin baizik huts egin bilkuretara, eta orduan ere egiteko larriagorik sortu zitzaiolako. Zor diogu, bada, besteak beste —eta Arestiren "besteak", mundu guztiak dakienez, oso ugari dira— aditza batzeko hartu zituen ardaila eta nekeegatik ere esker on-ona.

Hemezortzi lagun izendatu zituen Euskaltzaindiak lan honi ahalik lasterren ekiteko, Mitxelena jauna zuzendari eta lerroon egile naizen hau idazkari zirela. Hona hemen izenak: Akesolo, Aresti, Baztarrika, Berriatua, Epherre, Etxaide, Intxausti, Intza, Iraizoz, Kintana, Lafitte, Lafon, Mendizabal, Omaetxebarria, Oregi eta Txilardegi, zuzendari-idazkariez gainera. (Ikus EUSKERA XVI, Bilbao 1971, 130-131 orr.)

1971garren urteko udan bertan, batzordea izendatu eta egun gutxitara, hasi ginen lanean, lehen bilkura Baionan egiten genuelarik. Bigarrena Donostian izan genuen urte bereko Eguberrietan; hirugarrena ere, Donostian, 1972garrengo martxoan; laugarrena, Arantzazun, urte bereko uztailean, eta azkena, Bilbon 1973garrengo apirilan. Bilbon izan zen ere 1972garrengo abenduan beste bilkura bat, baina lau lagun bakarrik bildu ziren —besteok ez genuen deia garaiz hartu— eta hartan, lagun gutxiegi agertu zela-ta, ez zuten adizkirik jorratu nahi izan.

Bertantxetik utzi nahi nituzke finkaturik hiruzpalau puntu, gero burutu genuen lan osoari baitagozkio eta lanean erabili genituen jokabideak aski argitzen baitituzte:

1. Bilkuretara, damurik, batzordeko izan arren, lagun askok hutsegiten zuten maiz, askotariko arrazoiegatik noski, eta zazpi edo zortzi lagun biltzen ginen gehienik, inoiz gutxiago ere bai;

2. Adizkiak, batu ahala, bilkura bakoitzaren ondoan ez bazen ere, gehienez biren ondoan batzordekoei barreiatzen genizkien, ari genuen lanaren berri jakin zezaten eta berek ere onartzen ahal zituzten galdatzeko eta iritziak eskatzeko;

3. Lehen egunetik bertatik —lehenagotik ere bai eta horrexegatik ez zitzaigun inori berri gertatu, batak eta besteak aurreko hilabeteetan aditzera emateko lotsaizunik ez baikenuen izan, aldizkarietako artikuluetan eta ahotikako hitzaldietan, zein aldetako eta nolako aditza zitzaigun gogokoen— bi joera nabarmendu ziren batzordekoen artean eta bi taldetan sailkatu ginen: nolazpait esateko, antzinako

jatortasun-aberastasunak zernahiren gaindik gorde nahi zituztenena eta euskal aditz laguntzaile osoa inoiz izan dituen eta izan ez dituen, baina izan zitzakeen, forma guztiekin (baita hitanozkoekin ere) berehala batu nahi zutenena, batetik; eta, bestetik, egunoroko premiari besteek baino gehiago, ustez bederen, begiratuz, formarik erabilienak, maizenik ahotan eta lumatan hartzen ditugunak, finkatu nahi zituztenena, hitanozkoak ordukoz baztertuaz, edota, gutxienez, lehenbiziko adizki haiek hitanozko hauen baitan eta mendean jarri gabe. Bestela esan, eta oro har, horrelako erabateko laburpenek zehaztasunik erasten ez bazaie egia maiz itxuraldatzen badute ere, lehenek euskal aditz laguntzaile sistema osoa nahi zuten bertantxe bateratu, aditz aberatsa, joria eta ugaria izan genezan, eta horretarako adizkirik gehienak erabili zituzten antzinako euskal autoreengana zuten isuri nabaria; bigarrenek, berriz, aberatsa baino bizia eta gaurkoa hobe zelakoan, egungo egunean euskal herriko lagunik gehienek eta egungo eguneko idazlerik gehienek, hoberenak ez badira ere, erabiltzen dituzten adizkiak zituzten maiteago.

4. Besterik ere esan behar dut, aspaldiko lixkarbideak, orain zorionez guztiz isilduak, oroitarazi eta biztuko ote ditudan beldur banaiz ere, baina ixtorioa izan nahi lukeen hau ez litzateke ixtorio, huskeria ez baizik arras ardurazkoa denik isiltzen banu. Hots, behiala zin egin bazuten ere, eta "Batasunaren kutxa" hartzen dut lekuko —utikan lehen goraki aipatu dudan bi egileetatik baten izena, gugandik betiko joanarena, ezta ere hemen aurrean dagoen beste egilearena nik inola ere beztu, lagun horien izen garbia honelako edo halako hutsegiteen gaindik baitago, eta, bestalde, izanak izan dira eta bere garaian esan zitzaien hau aurpegiz-aurpegi—, ez zuen zenbait lagunek Mitxelenak bere gogoko adierazi zigun euskal aditz sistema onartu, baizik eta nahiago izan zuten adizkiz adizki eta formaz forma aditz laguntzaile osoa aztertu eta banan banan adizki guztiak finka genitzan.

Honela zioen gai honi buruz Txillardegik Aita Villasanteri 1973garrengo martxoaren 28an idatzi zion eskutitzean:

"Behin eta berriz esan dugu denok (eta agirian ZINEGIN ERE BAI) Mitxelenaren irizpidea ontzat emango genuela. Irizpide hori ARGI ETA GARBI EMANA DAGO. "Batasunaren kutxa" liburuan gauza bera agindu zen: "Mitxelenaren promesa pean" edo horrelako zerbait. Beti esan dugu gauza

bera: MITXELENAK ERABAKI ARTE. Hots, gaur Mitxelenak iritzi hori emana du. Ez dut ikusten zergatik aldatu behar dugun. Batzordeko bik (nik neuk, eman dezagun, eta beste nornahik) orain puntu hau edo hura ukatuko bagenu, zer gertatuko litzateke? MITXELENAK BERE IRITZIA EMANA DU, ETA EMAN DUGUN HITZA BETE BESTERIK EZ DUGU BEHAR. NAFAR-GIPUTZ sistema''.

Handik hiru egunetara, martxoaren 31an, beste honako hau idatzi zion Aita Villasante berari:

''Hona hemen ene iritziak puntuz puntu:

a. Mitxelenak behin eta berriz proposatu duenez, GERORAKO utz daitezke hauek (hots, ''hika'' eta ''zuka''-ko adizkiak, ''alokutibo'' edo ''etiko'' deritzatenak).

Behin eta berriz azaldu duenez, era berean (''Mitxelenaren Idazlan Hautatuak'' liburuko ''Azken iritziak'' atalean bereziki) GIPUTZ-NAFARRERAZ gertatzen diren nahasketak (L., diat/derauat tankerakoak) *ez dira aski* aspaldi honetan mamitu den paradigmen aldeko joera baztertzeko.

b. Mitxelenak behin eta berriz proposatu duen bidea onartuz, GIPUTZ-NAFARRERA hartu behar da ontzat: diat, dinat, dizut sailekoak.

Gai hau joan den uztailean bozkatu zenean, garbiki gailendu zen GIPUTZ-NAFARRERA-ren aldeko nahia''.

Eta honela darraika gero: ''Baionan eta Ermuan ZINEGIN genuen idazleok, bestalde, nik barne, badugu beste arrazoinik MITXELENAREN IRITZIA onartzeko: hain zuzen ere garai hartan ongi agirian eta goratik egin genuen ZIN HURAXE. Argiro gogorazi nahi diet hau, besteak beste, Aresti eta Kintanari, ''Batasunaren kutxa''-n eta bestetan eman zuten hitza MITXELENAK bere iritzia *eman arte*, eta abar, onartu zirelako''.

Horiek horrela zirela, eta zinak zin, lanari ekin genion, gogo biziz, arreta handiz, baina asko edo gutxi guztiok barrenen genuelarik halako gudu aurreko mementuan soldaduek somatzen omen duten larriduraz eta zalantza larriaz: nor aterako ote garaile?

Lanari, formarik errazenetarik hasiaz eta zailenak, edota iritzi ezberdinak sor zitzaketenak, gerorako utziaz, ekin genion. Baina ustez errazen ziren askok ere eztabaidak sortu

zituzten. Ezin hemen aipa guztiak, eta batipat ezin hemen ager bataren nahiz bestearen alde batak nahiz besteak ateratzen zituen arrazoiak. Buruhausterik handienak eman eta lanik latzenak eman zizkiguten formak aipatuko ditut:

1. 'zarete' ala 'zarate' eta lehen aldian 'zineten' ala 'zinaten': lehenak atera ziren gailen, nahiz eta 'zaratekete' eta 'zinateketen'.
2. (etorri) 'dateke' ala 'date'; 'naizateke' ala 'naizate'. Lehenak gailendu ziren hemen ere.
3. (etorriko) 'litzateke' ala 'litzake'... eta abar. Lehena onartu zen.
4. (etor) 'dadin' ala 'dedin'. 'dadin' gelditu zen.
5. (zuek etor) 'zaitezkete' ala 'zaitezteke', 'zintezkete' ala 'zintezteke'... etab.
6. (hark zuek ikusi) 'zaitue' ala 'zaituzte'... etab. Eta hirugarren, pertsonan pluralean, (haiek zuek ikusi) 'zaituzte' ala 'zaituztete' ala 'zaituztee' ala 'zaituzte'. Eta indikatibotik kanpo, (hark zuek ikus) 'zaitzaen' ala 'zaitzazten' ala 'zaitzaten'. Eta pluraleko hirugarren pertsonan, (haiek zuek ikus) 'zaitzaeten' ala 'zaitzazteten' ala 'zaitzazteen' ala 'zaitzaten', eta abar, eta abar. Eta ahal izateko moduan, 'zaitza(z)teket' ala 'zaitza(z)ketet'...
7. (esan) 'genuen' ala 'genduen' eta 'genuke' ala 'genduke', etab.
8. (hark ni ikus) 'nintzan' ala 'nentzan' ala 'nenzan': subjuntiboan, alegia, eta abarretan. Ala 'nindezan' eta 'gindezan'?
9. (hi!, hark ni ikusi) 'niauk' ala 'niaik' ala 'naik'; eta horien arabera, (hi!, hark gu ikusi) 'giaituk' ala 'giaitik' ala 'gaitik', etab.
10. (hi!, haiek aldapa igo) 'diate - dinate' ala 'die - dine' ala 'ditek - dinate', etab.
11. NOR-NORI-NORK sistema osoa. Giputz-Nafarrera sistema ala Lapurdikoa? 'dit' ala 'deraut' ala 'daut'? Eta puntu honetan pisu handia beste honek zuen: hitanozkoetan 'diat' eta 'derauat' bereizi, lapurteraz bezala, ala 'diat' bakarra hartu, giputznafarreraren arabera? Bereiztekotan, 'dit'-ek, hots, giputznafar sistemak, ez omen baitzuen zentzurik. Horregatik nahi zuten batzuek 'diat-derauat' ala 'diat' bakarraren korapiloa aldez aurretik askatu, horren mendean jartzen baitzuten 'dit' ala 'de-